



Gregorio
Arrue
Rezola

*Euskal itzultzaile
trebe eta oparoa*

(1811-1890)

BIDeGILEAK

Egilea:

Josu Zabaleta



GREGORIO ARRUE REZOLA

(1811-1890)

Itzultzailea bere lanbidez beti ezkutuan, egilearen atzean, bigarren mailan gertatzen bada ere, euskal literaturaren historian badira itzultzaile-izen batzuk egile handien maila berera jasota geratu direnak eta euskal literaturaren historian aro nagusi batzuk markatu eta ezaugarritu dituztenak. Itzulpenak, oro har, leku handia izan du beti euskal literaturaren historian, euskal literatura idatziaren historiaren lehenengo mendeetan batez ere, XX. mendea arte, muga nonbait jar-tzeagatik. Gogoratu besterik ez dago, adibi-dez, 1900 arte euskaraz argitaratu ziren liburu guztien ia erdiak itzulpenak zirela, oso-osorik, eta itzulpenak ez zirenetatik ere, partez edo osorik, moldapenak zirela beste asko.

Euskal Herrian bada kultura eta politika munduko gizatalde bat, XIX. mendearen er-ditik aurrera batez ere, une horretan, egoera politikoari eta garai berrietako premiei eran-

tzunez, euskara eta euskal kultura biziberri-tzeko ekimenak bideratuko dituenak; horien artean badira idazleak eta itzultzaileak ere.

Hala, XIX. gizaldiaren erditik aurrera itzultzaile-andana garrantzitsu bat ager-tzen da; ez itzultzaile bakarrik, baizik eta idazle ere badirenak, baina beren pro-dukziorik handiena itzulpenaren eremuan eman dutenak, beren itzulpenen zenbait ezaugarriengatik elkarren hurbilekotzat jo daitezkeenak. Batzuen izenak aipatu baina gehiegi ez luzatzeko, Jose Antonio Uriarte, Duvoisin kapitaina edo Manuel Antonio Antia nahitaez zerrendan sartzekoak dira. Horiekin batera Gregorio Arrue, haiek bezain itzultzaile oparoa, oparagoa ez bada; haiek bezain irakurria, irakurriagoa ez bada, eta haiek bezala itzultzaile ez ezik, idazle, olerkari eta, zentzu batean bederen, hizkuntzalaria, hizkuntzaz arduratua.



Gregorio Arrueren bizitza-zertzeladak

Hernani, 1839 (Bligh Barker eta Sydney Crocker)

JAIOTZA ETA LEHEN URTEAK

Gregorio Arrue (edo Arruebarrena), geroa euskal letretan izan den itzultzailearik handienetako bat bilakatuko zena, Hernanin jaio zen, 1811ko maiatzaren 21ean. Baina, ia bere bizitza osoa Zarautzen egin zuenez, zarautzartzat hartzen da, ia beti.

Gauza bat argitu beharra dago, hala ere, jaiotzari baino gehiago izenari dagokionez. Gregorio Arrueren jaiotzako lehen deitura, aitarena, Arruebarrena zen. Juan Antonio Arruebarrena, Berrobiko semea eta Maria Aszension Rezola, Albizturko alaba baitzuten gurasoak. Gurasoengandik zuen lehen deitura hori hemezortzi urte zitue-

nean aldatu zuen, eta harrez gero Arrue soilik izan zuen; ordu arteko dokumentu ofizialetan, bataio-agirian adibidez, Arruebarrena deituraren *barrena* zatia geroztik ezabaturik edo urraturik ageri da. Izen osoa Gregorio Antonio bazuen ere, Gregorio izenpetzen zuen beti, eta Gregorio Arrue izenaz ezagutu izan da.

Gregorio Arruek hiru urte zituela, Hernanitik Zarautza aldatu zen familia osoa, eta herri horretako Kale Nagusian hartu zuen bizilekua. Zarautzen egin zituen, beraz, lehen ikasketak, eta han igaro zuen bere haurtzaroa eta nerabezaroa; eta, geroa ere, Zarautzen igaroko zuen bere bizitza guztia, handik kanpo egin zituen egonaldi



Hernani I. karlistaldian, 1838 (Henry Wilkinson)

labur batzuk salbu. Zarautzen izan zen eskola-maisu zahartu arte, Zarauzko udaleko idazkari izan zen aldi batez, garai hartako eskola-maisu asko bezala, eta Zarautzen hil zen, 78 urte zituela, 1890eko apirilaren 21ean.

Hemezortzi urte zituela Arantzazuko Santutegira joan zen, frantziskotar fraide izateko asmoz. Uste izatekoa da Zarauzko frantziskotarren Misiolari Kolegioko fraideekin harremanetan izango zela ordu-rako, eta eginak izango zituela, orobat, latin-ikasketak, 1829ko abenduaren bostean nobizio hartu baitzuten. Handik urtebete




Hernani XIX. mendean, 1850 (G. Carpenter)

eta bi hilabetera, ordea, etxera bidali zuten osasun txarra zuelako.

Seguru asko, Arantzazura joan aurreko eta ondoko urte horietan nahiko harreman estuak izango zituen Zarauzko frantziskotarren Misiolari Kolegioan bizi ziren euskal idazle ezagunekin, han izan baitzuen aukera haietako zenbait ezagutzeko, aurrerago ikusiko denez.

1834an eskola-maisu zegoen Zarautzen (43 urte egingo zituen lanbide horretan). Ez dago maisu-ikasketak noiz eta non burutu zituen zehazten duen dokumenturik; bai,



Zarautz, 1850 (G. Carpenter)

ordea, 1850eko agiri bat Lehen Hezkuntzako Irakasle tituluduna zela frogatzen duena.

Maria Magdalena Rafaela Balanzategi zarautzarrarekin ezkondu eta hiru seme-alaba izan zituen: Joan Kruz Ramon Nonnato, Josefa Joakina eta Gregorio Antonio. Hirugarren semea izan eta lau hilabetera hil zen, ordea, emaztea. Hiru haurren aita gaztea Josefa Antonia Leunda, Beasaingo alabarekin ezkondu zen berriro. Bigarren emazte honekin beste hiru seme-alaba izan zituen: Jose Maria Frantzisko, Maria Balbina eta Frantziska Ignazia.

BIZIGIROA

Gregorio Arrueren bizialdi osoa hartzen duen hemeretzigarren mendez zertzelada labur batzuk baizik ezin ditugu ekarri hona, haren bizitza kokatzeko. XIX. mendea istiluz eta gorabeheraz betetako garaia izan zen Europa osoan. Frantses Iraultzak antzinako gizarte osoa astindu zuen, erregimen zaharraren sakratutasuna hautsi, eta Europa denean zabaldu zen haren sua. Aldaketa horiek guztiak ez dira gauzatuko, erregimen zaharraren zutabeak ziren instituzioen eta talde sozialen aldetik erresistentzia bortitz bat gertatu gabe. Urte gutxiren buruan Europaren mapa politikoa erabat



Frantziako Iraultzak Europa osoa astindu zuen

aldatuko zen, Napoleonen gerren ondorioz; tokian tokiko egoeraren arabera gertatuko zen gerora Europako estatuak izango zirenetan: inperioak suntsitu, mugak aldatu eta estatu berriak sortu ziren.

Euskal Herrian, Gipuzkoan batez ere, Frantziako Konbentzioaldian (1792-1795) hasi ziren zabaltzen gizartearen eta estatua-
ren antolamendu berri baten aldeko, gizarte liberalaren aldeko ideiak.

Hego Euskal Herria Espainiako estatu zentralizatuan integratuz joan zen mende osoan zehar. Modernizazio eta zentralizazio prozesu hori guztia gatazkatsua izan zen, era askotako indarrek, joera askotakoek hartu zuten parte, batzuetan nahastuz, beste batzuetan bereiziz: tradizionalistak, liberalak, progresistak, moderatuak, extremistak, zentralistak, foruzaleak, arazo dinastikoak. Gerrak, estatu-kolpeak, matxinadak, errepresio latza. Nekez esan daiteke XIX. gizaaldian bake-hamarraldi bat bera ere izan zenik.

Gainera, aldi hartan estatu moderno bat eratzeke saioen eta probintziak bere egitura eta ezaugarri bereziak gordetzeke aha-



Narros jauregia eta hondartza Zarautzen, 1879
(*El Oasis: viaje al país de los fueros*)



Zarauzko Torre Luzea, 1879
(*El Oasis: viaje al país de los fueros*)

leginen arteko gorabeherak eta tirabirak hartu beharko dira kontuan, Arruek bizi izan zuen giroa ulertzeko.

Muturreko egoerak baizik kontuan hartu gabe, lau gerra ezagutu zituen Gregorio Arruek bere lurretan: Independentziako gerra garaian jaio zen; gero hiru karlistaldi, eta hainbat matxinada eta jazarraldi. Gerra horiek berebiziko hondamendiak eragin zituzten herrietako ekonomian eta bizimoduan: ondasunak, baserriak, herriak, etxeak, lantokiak hondatzen zituzten. Lehenengo gerra karlistan, esate baterako, Zarauztik urrutira joan gabe, Getariako herria ia erabat suntsitu zuten 1836an, su emanda. Baita hiru urte lehenago Arruek utzi zituen Aranzazuko komentua eta santutegia ere (1834).

Elizak herritarren artean berebiziko indarra zuen gizarte batean etengabeko gatazkak izan ziren elizaren eta tradizionalisten eta liberalen artean, bai ekonomian (desamortizazioak), bai ideologia-mailan (irakaskuntzaren eta propagandaren eremuan batez ere).

Desamortizazioak, «esku hiletan», amortizatuta, eskuz ezin aldatuak zeuden ondasunak –eliza katolikoaren eta ordena erlijiosoaren eskuetan zeudenak, batez ere, arauz besterendu ezin zitezkeenak– haien eskuetatik indarrez desjabetu eta merkatu-

ra ateratzeko prozesuak izan ziren; estatua-
ren altxor hustua berriro bete eta burgesia berri bat eta erdi-mailako nekazari klase berri bat sortzea zuten xedea. Helburu horietatik lehenengoa bete zuten, gainerakoak ez horrenbeste eta ez neurri berean alde guztietan.

Bi desamortizazio nagusi izan ziren batez ere ezagunak:

- a) Mendizabalena deitua (1836an hasia). 1844an desamortizazio-prozesua bukatutzat eman zenerako, elizaren



Juan Alvarez Mendizabal, lehenengo desamortizazioa bultzatu zuen ministroa

ondasunen % 62 inguru amortizatu zen. Ez zuen balio izan, hala ere, erdi-mailako nekazari-klase bat sortzeko, enkantean jartzeko sailak nekazariak erosteko handiegiak zirelako, edota nekazariak ez zekitelako nola parte hartu.

- b) Madozen desamortizazioa (1855etik aurrera). Desamortizazio honetan elizaren ondasunak ez ezik, esku hiletan zeuden lur sail eta hiri-lur guztiak atara ziren enkante publikora. 1856tik aurrera ez zen gehiago aplikatu, baina 1895 arte egon zen indarrean, berrogei urte horietan atzeratutako ordainketak diru-sarrerara oparoa izan baitziren Herri Ogasunarentzat. Herri-lurrak pribatizatzean, ordea, arras okertu zen nekazari askoren egoera, beren osagarritzko bizigaiak eskuratzeko erabiltzen baitzituzten lur haiek, eta gune industrializatueta edo Ameriketara emigratzera behartu zituen asko eta asko.

Desamortizazioak exkluazazioa ekarri zuen, fraideak komentuetatik kanpora bizi beharra; zenbait garaitan, hala ere, fraideen esepen agerikoa, kalean abituz jantzita ibiltzea debekatzera inokoa, gobernu libe-



Pascual Madoz, bigarren desamortizazioa abian jarri zuen ministroa

raletan batez ere. Herritar askok, elizaren eta beren foruek bermatzen zieten bizimodu tradizionalaren kontrako eraso balitz bezala sentitu zituzten jokamolde horiek; erraza zen denak bat egitea, eta aldi berean, auzia arazo dinastikoekin nahastean, karlismoaren haztegi bilakatu zen.

Beste alde batetik, ordea, komunikazioak hobetu ziren eta industrializazioa hasi zen. Zarautzen bertan, kostaldeko errepide berria egiteak merkataritza erraztu eta bultzatu zuen. Ordu arte, balearen arrantza bukatu zenetik, gehienbat nekazaritza eta arrantzatik bizi zen herrian, lantegi berri batzuk sortu eta ofizioak aldatzen hasi ziren.

Pablo Gorosabelek dioenez, 1862an herritarren lanbide nagusiak nekazaritza eta itsasoko arrantza ziren oraindik. Artoa eta

gari pixka bat ereiten ziren batez ere; sagarra eta gaztaina biltzen ziren, eta baziren mahasti batzuk Santa Barbara aldean eta inguruan. Fabrika bakarra zegoen, Pascual Madozen –desamortizazioa bultzatu zuen Ogasun-ministroaren– liho-ehundegia (1859an sortua), mihise eta ehungintzan ziharduena, eraiki berria; 100en bat pertsona ari ziren zeregin horretan. Lantegi horrek mesede handia egiten zion herriari; ehundegiak, itsasertzeko diligentzientzako bidea zabaldu izanak eta uda garaian kanpoko jendea itsasoko bainuak hartzera etorzen hasteak asko lagundu zuten ordu arte atzeratuta gelditutako herria biziberritzen eta aberasten, herrira lana ekartzen. Une horretan 2.000 biztanlera ez zen iristen herria.

Aipatu dugun Pascual Madoz horixe bera izan zen Zarautzen, industriaz gainera, turismoa sartzen hasi zenetako bat ere. 1865 eta 1866 urteetan Isabel II.a erregina Zarautza gonbidatu zuen, Narros Palaziora, uda partean itsasoko bainuak hartzera. Erreginaren etorrerak Espainiako aristokraziaren modako udalekuen artean kokatu zuen herria. Turistekin batera haien familiak eta zerbitzuko langileak etorri ohi



Isabel II.a erreginari
1865ean Zarautzen egin
zitzaion harreraren irudia



ziren eta egonaldi luzeak egin ohi zituzten. Horrek lanbide berriak ekarri zituen, eta are gehiago bizkorragotu zuen herriaren itxura-aldaketa.

Beraz, laburtzeko, borborka eta aldatzen ari zen herri batean bizitzea suertatu zitzaion Arrueri.



Eskola-maisu

Gregorio Arrue. Jorge García
Alegríaren marrazkia

Gregorio Arrue Zarauzko eskola-maisu izan zen bizitzaren parterik handienean: lehen hezkuntzako eskola-maisu. Gorosabelek bere Gipuzkoako Geografia-hiztegian dioenez (1862), Zarautzek bazituen mutikoentzako eskola bat, urteko 3.300 errealeko hornizioa zuena, eta neskentzako beste eskola bat, 2.200 errealez hornitua. Haur-eskola bat ere bazen, pertsona partikularrek ordaindua.

Lehen Hezkuntzako eskola-maisu zen aldetik, beraz, Euskal Herriko eskolek bizi izan zituzten gorabeherak eta Espainiako estatu zentralistarekiko tirabirak ezagutzea eta bizitzea egokitu zitzaion.

Espainiako hezkuntza-sistemaren zentralizazioa Espainiako estatuaren zentralizazioarekin batera hasi zen, eta harekin batera joan zen finkatuz; Gregorio Arrue maisu izan zen garairako nahikoa ezarria zegoen. Hala ere, hezkuntza-sistema hori finkatu eta egituratu zuten legeen artean erreferentziazkoetako bat, erreferentziazkoena beharbada, *Ley de Instrucción Pública*, Moyanoren legea deitua da (1857). Aipatu beharra dago, alde batetik, progresisten eta moderatuen arteko adostasun zabal batez onartu zela, lege honen aurrerari gehienak ere nahiko adostasun handiz onetsi ziren bezala, eta, beste alde batetik, geroztik mende luze batez izan zela Espai-



XIX. mendean hezkuntza-sistema egituratzeko hainbat saio egin ziren

niako hezkuntza-sistemaren arau-markoa. 1970ean Hezkuntzaren Lege Orokorra onartu zen arte iraun zuen, bitartean garapen eta erregelamendu asko izan bazituen ere. Horrexegatik hartzen dugu guk ere erreferentzia gisa.

Egia da lege hau Gregorio Arrueren maisu-bizitzaren azken aldian, haren helduaroko garaian baizik ez zela egon indarrean. Baina kontuan hartu behar da lege berri hau lehendik indarrean zeuden eta antzeko hezkuntza-sistema bat egituratzen zuten beste lege batzuen burutzea izan zela, haiek egituratutako sistema bermatuz eta finka-

tuz, nolabait esateko: hala nola 1821eko *Reglamento General de Instrucción Pública* eta 1845eko *Plan General de Estudios*, hauek bai, Gregorio Arrueren lanbidea gehiago eta beteago baldintzatu zutenak.

Moyano ministroaren legeak (eta, neurri bateraino, haren aurrekariak) hezkuntza-sistemaren alderdi nagusi guztiak arautzen zituen: derrigorrezkotasuna, giza baliabideak, finantza-baliabideak, ikasketa-mailak, edukiak eta abar.



Claudio Moyano ministroa

Arrue aritu zen ikasketa-mailari dagokionez –Lehen Hezkuntza–, honela labur dai-
tezke legearen agindu nagusiak:

Eskolatzea derrigorrezkoa zen. Eskolak pribatuak zein publikoak izan zitezkeen. Ez zen nahitaezkoa maila guztietan eskolara joatea; etxean ere ikas zitezkeen. Lehen Hezkuntzako eskola publikoak beren errenten bidez, ikasleek ordaintzen zutenaren bitartez, eta udalek, probintziek edo estatuak ematen zietenetik finantzatzen ziren.

Lehen irakaskuntzak bi aldi zituen: oinarritzkoa (6 urtetik 9 urte arte, derrigorrezkoa eta doakoa ordaindu ezin zutenentzat) eta bigarren mailakoa (12 urte arte): Oinarrizkoan Irakurketa, Idazketa, Gaztelaniazko gramatikaren hastapenak, Ortografia, Aritmetika (neurri- eta pisu-sistema, dirua), Nekazaritzaren hastapenak, Merkataritza eta Industria (herriaren eta lekuaren arabera). Bigarren mailakoan, oinarrizkoan ikasitakoaren berrikusketaz gainera, Geometria hastapenak, Marrazketa lineala eta Landa-neurketa; Historia eta Geografia hastapenak (Espainiako Geografia eta Historia) eta Fisika eta Izadi-

-jakintzako hasi-masiak irakasten ziren «bizitzako ohiko premietara egokituta».

Neskak eta mutilak bereizita egoten ziren, 500 biztanletik beherako herrietako eskola txikietan salbu. Neskek, beste gai batzuk zituzten goiko horietako batzuen ordeztu: Nekazaritzaren hastapenak, Merkataritza eta Industria, Geometria hastapenak, Marrazketa lineala eta Landa-neurketaren ordeztu, beren sexuari zegozkien eginkizunak, Marrazki hastapenak (eginkizun horietara egokituak, eta etxeko higienez hasi-masiak).

Horiez gainera, Kristau Doktrina eta Kristau Morala irakastea ere derrigorrezkoa zen; herriko apaizaren kargu izaten zen gehienetan gai hauek irakastea. Kristau doktrinari zegokionez, elizbarruti bakoitzeko apezpikuak zuen eskua edukiak definitzeko.




Asteteren doktrina, G. Arruek 1858an euskaratua

Gainerako guztian, eskola publikoa Hezkuntza Publikoko Errege Kontseiluaren mende zegoen; hark definitzen zituen, eskualde- eta probintzia-mailako egitura hierarkikoaren bitartez, irakaskuntza-edukiak eta testuak. Halaxe xedatzen da: «testuliburu berak erabiliko dira, Hezkuntza Publikoko Errege Kontseiluak zehaztuak, eskola guztietan». Zehazki agintzen da, adibidez, besteren artean: Espainiar Akademiaren Gramatika eta Ortografia derrigorrezko testua eta bakarra izango dela gai horietarako irakaskuntza publikoan; horiez gainera Gobernuak izendatuko ditu Lehen Hezkuntzako irakurketa-ariketarako testuliburuak.

Oinarrizko mailako eskola-maisu izateko prestakuntza ikasketa hauek osatzen zuten: Kristau dotrinaren ikasbide esplikatuak; Historia Sakratuko gaiak. Irakurketa; kaligrafia; gaztelaniazko gramatika, konposizio-ariketekin. Aritmetika; geometria, marrazki lineala eta lur-neurtzea. Geografia-elementuak. Espainiako Historia. Nekazaritza-hastapenak. Hezkuntza-hastapenak eta irakaskuntza-metodoak. Irakaskuntza-ariketak.

Eskolan ez zegoen lekurik gaztelania ez ziren hizkuntzentzat. Horretan, Karlos III.aren Errege Zedulak ezarritako doktrinari jarraitzen zitzaion: eskolako irakaskuntza guztia «gaztelaniaz bakarrik» emango da.

Espainiako gobernuen jarrera zentralista eta unifomizatzaile horrek, hala ere, erresistentzia handiak eragin zituen Euskal Herriko jende eta erakunde askoren



Agustin Pascual Iturriaga pedagogo hernaniarra

artean. Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta are Nafarroako Foru Erakundeek, batez ere, ordu arte foruei esker hezkuntza-gaietan zuten eskumena eta kontrola –kontrol ideologikoa, maisuak aukeratzeko eta izendatzeko eskumena, irakaskuntzaren ikuskaritza, adibidez– galtzen ari zirela ikusten zuten eta behin baino gehiagotan saiatu ziren gobernu zentralaren politika horren kontra, bai Moyanoren legea baino lehenago bai ondoren, Foruak erabat galdu ziren arte. Ahalegin horietarako arrazoiaren artean, bat, ez bakarra, hizkuntzaren arazoa da: Euskal Herriko alde askotan biztanleen gehiengoa ia euskaldun hutsez eta eskola gaztelania hutsez izateak ez zuten batere laguntzen haurra eskolan integratu eta hartatik probetxua atera zezan.

Euskarak bere lekua behar zuen eskoletan, lehen hezkuntzako eskoletan batez ere, Euskal Herriko haurrak hezkuntza-sisteman integratzen hasteko, gaztelania ikasten hasteko besterik ez bazen ere. 1841ean dagoeneko Agustin Pascual Iturriagak bere *Arte de aprender a hablar la lengua castellana para el uso de las escuelas de primeras letras de Guipúzcoa* argitaratu

zuen, eta hurrengo urtean *Diálogos basco-castellanos para las escuelas de primeras letras de Guipúzcoa* (Jolasak), eta *Fábulas y otras composiciones en verso bascongado, dialecto guipuzcoano, con un diccionario basco-castellano de las voces que son diferentes en los diversos dialectos*. Handik urte batzuetara, Gipuzkoako Biltzarrak, Lardizabalen *Testamentu Zarreco eta Berrico Condairaren* arrakasta ikusirik, haren euskal *Gramática Vascongada* argitaratzea



Frantzisko Inazio Lardizabal

erabaki zuen eta, 1856an Donostian in-primaturik, lehen hezkuntzako irakasleen esku jarri zuen euskara irakasteko erabil zezaten. Geroago, antzeko ahalegina egingo zuen Joan Maria Eguren elgetarrak, Gipuzkoa eta Arabako irakaskuntzako ikuskatzaile izan zenak, bere *Método práctico para enseñar el castellano en las escuelas vascongadas* obrarekin.

Gregorio Arruek ez du zehazki aipatzen zein iritzi zuen arazo honi buruz, baina pentsatzekoa da behartuta egon zela auzi honen aurrean bere jarrera definitzera. Lekukotasun bat bada, hala ere, Arruerekin euskaraz ikasten aritu zen W. van Eys hizkuntzalariaren emaztearen bidaia-oharretan, hark idazten baitu: «Euskara zen gure bidaiaren helburua eta alde guztietan hitz egiten zen; baina, Arruek nire senarrari kontatzen zionez, Espainiako gobernuak euskara suntsitzen ahalegintzen zen, eskolatik hasita; bazen eraztun bat, aste hasieran euskaraz hitz egiten harrapatzen zuten lehenengo haurrari ematen zitzaiona; hark beste bati entzuten baldin bazion, hari ematen zion, eta hala astea bukatzen zen



Willem van Eys euskalari holandarra

arte; larunbatean zeukan azkenekoa zigorraz jotzen zuten».

Gerora itzuliko zituen zenbait testuk bereziki eskolarako prestatuak dirudite, lehenengo argitaratu zuen itzulpenak batez ere «Cristauaren Dotrinaren jaquinbide azaldua», baina ez da gauza segurua.



Gregorio Arrueren euskal lanak

Zarauzko frantziskotarren komentuaren ataria gaur egun

Ez dakigu noiz eta zeren eraginez hasi zen Gregorio Arrue euskara-gaie-tara zaletzen eta euskara lantzen. Irakaskuntzan aurkitzen zuen egoera eta bere bizilekuan bertan, Zarautzen, zegoen frantziskotarren Misiolari Kolegioko fraideekiko harremanak izango ziren, inondik ere, horretara bultzatu zutenak.

Haiekin harremanak zituela ez dago dudarik. Besteren artean, berak prestatu zuen *Peru Abarkaren* itzulpena frantziskotarren komentu hartan gordetzen zen liburuaren jatorrizko eskuizkributik egin zuelako. Han gutxi-asko ezagutu zituen zenbait fraide idazle eta gramatikalari ospetsuak izan dira euskal letretan: Pedro Antonio

Añibarro, Juan Mateo Zabala, Aita Jose Kruz Etxeberria, Aita Kristobal Linaza, esate baterako.

Zarauzko Misiolari Kolegioak (1745ean hartu zuen izaera hori) ospe handi samarra zuen euskarari eskaintzen zion ardura bereziagatik eta bertako fraideek euskara ongi menderatzen jartzen zuten lehiagatik. Misiolari Kolegioa izateak berak zekarren hori, ez baitzen, izan ere, gaur egun izen horrek iradoki lezakeen bezala, urrutiko lurraldeetako misioetara joateko misiolariak prestatzeko ikastegi bat, aspalditik kristauak ziren herrietan misioak ematen zituzten fraideentzako erregimen bereziko bizitoki eta prestaleku bat baizik. Zarauzko

Zarauzko frantziskotarren
komentuko liburutegia



Misiolari Kolegioaren beraren araudian bertan jasota dago arreta berezia eskaini behar zaiola hizkuntzari.

Misiolari Kolegioan ezinbesteko gaiak ziren teologia eta oratoria. Misioen helburua kristau zintzoak egitea ez ezik kristau jakitunak egitea, kristauak dotrinatzea baitzen. Adibidea beste leku batetik hartuz, Jose Antonio Uriarte frantziskotarra exkluaziotik Bermeoko komentura itzuli zenean, oratoriako irakasle (sermoi-prestatzaile) eta gero teologiako irakasle izendatu zuten. Oratoria-lanen eredu bikainak dira, adibidez, Zarauzko komentuko liburutegian dauden sermonarioak, sermoi-bildumak, han jardunek eginak.

Zarauzko fraideen misio-eremua frantziskotarren Kantabriako probintziak hartzen zituena zen: Kantabria, Burgos probintziaren ipar aldea, Nafarroa, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa; gaztelaniaz gainera, euskaraz, hainbat euskalkiz, mintzatzen ziren lurraldeak.

Aita Larramendik berak, Aita Kardaberezek eta beste askok kritikatzten dute, XVIII. mendean, Hego Euskal Herriko apaizek, teologiari zegokionez zuten pres-tamen urria ez ezik, euskarari dagokionez erakusten zuten utzikeria, haien sermoietako euskararen zabarkeria. Larramendik, ordea, Zarauzko frantziskotarrak salbues-ten ditu, haiek «euskara garbi, ulergarri eta ongi ordenatuan» predikatzen baitute.

Zarauztik Euskal Herriko bazter guztietara ateratzen ziren fraideok tokian tokiko euskalkira moldatzen ahalegintzen ziren. Euskarari zegozkion gaiak sakonagotik aztertzeke lehenengo baliabidea Aita Larramendiren gramatika izango zuten. Baina hartatik abiatuta lan handiak egin zituzten euskal gramatikan eta euskalkien eremuan, batez ere. Era horretako lanen adibideak dira Añibarroren *Gramática Bascongada*

para el uso y alivio de Párrocos y Predicadores Bizcaynos, Guipuzcoanos y Navarros (hiru euskalkien aditz-jokoaren azterketa), *Voces Bascongadas diferenciales de Bizkaia, Gipuzcoa y Navarra* edo *Cristau doctrina, ceñetan eracusten baitire gure fede sanduko gauzaric bearrenac* (goi-nafarreraz idatzia), edo Juan Mateo Zabalaren *El verbo regular vascongado* (Zabalak berak dio 38 urte eman zituela euskal aditza ikertzen). Azkenean Zarauzko Misiolari Kolegioan hilko zen Jose Antonio Uriarte frantziskotarraren lanak ere jokamolde beraren adibide bikainak dira.



Zarauzko frantziskotarren komentuko liburutegiko euskal liburu batzuk

Euskalkien ezaguera hori, misiolari-ibilien bitartez ez ezik, ordu arteko euskalki guztietako literatura ongi ezagutuz lortzen zuten, erabiltzen zuten liburu-altxorrak eta euskal letretako gizonekin zuten harreman-sare zabalak erakusten dutenez.

Ezaugarri horiez gainera, Zarauzko Kolegioko misiolariak badute beste ezaugarri bat ere, Gregorio Arrueri oso ongi egokitzten zaiona: misiolari horietako asko eta asko itzultzaileak dira: Añibarro, Zabala, Etxeberria. Idaztanceran ere haien arrastoari jarraitzen dio, geroago ikusiko dugun bezala, Gregorio Arruek.

Egia da 1840tik 1867ra bitartean Zarauzko Misiolari Kolegioko fraideak exklustraturik egon zirela. Hala ere Kolegio hartako altxorra ez zen galdu; Aita Luis Villasantek dioen bezala, «Txopitea ta Altuna jaunek bahituran emandako diruaz erosi, eta leialkiro gorde zituzten, eta gero 1867. urtean, frantziskotarrek komentua hura berpiztu zutenean, jaun horiek etxe-baratzak doarik bihurtu eta gainera komentuan bertan sartu ziren fraide. Horri eskerrak, Zarauzko Misiolarien paper zaharrek egun arte iraun ahal izan dute, exklustrazioko tar-

te horretan galdu gabe». Bitarte horretan komentua helburu askotarako erabili izan zen, irakaskuntzarako, besteren artean. Aldi batez Gregorio Arruek hantxe eman zituen eskolak, eta hantxe bizi ere bizi izan zen (Van Eys hizkuntzalari holandarraren emazteak bere bidaia-liburuan jaso zue- nez), nahiz eta etxea kale nagusian eduki, eta han kokatu zituen, tartetxo batez, Van Eys senar-emazteak, hango arkakusoenga- tik berriro alde egin zuten arte.

Gregorio Arrueren euskal lanak itzulpenak dira batez ere, gaztelaniatik gehienbat bai- na beste euskalki batzuetatik ere bai. Lehen ere esan bezala, euskal literaturaren histo-



Zarauzko komentuan eman zituen aldi batez eskolak Arruek

rian izan den itzultzaierik oparoenetako bat izan zen. Adinean nahikoa aurreratua zela hasi zen itzultzen; 47 urte zituela argi- taratu zuen lehenengo euskarapena; badi- rudi, hala ere, hamar urte lehenago egina zuela, eta baimen edo diru faltaz egon zela argitaratu gabe. Hurrengo liburuak, 1877an irakaskuntza utziz gerokoak batez ere, as- koz ere hurrenkera bizkorragoan argitaratu zituen. Esan beharra dago, gainera, Grego- rio Arrue izan zela XIX. mendean bere lan gehienak argitaratuta ezagutu zituen idazle bakanetakoa. Arrueren liburu gehienak ga- rai hartako best-sellerrak izan ziren, argital- pen eta berrargitalpen kopuruari begiratzen bazaio, behinik behin.



Zarauzko udaletxea XIX. mendean

ITZULPENEN ZERRENDA, LEHEN ARGITALPENEN URTEAREN ARABERA

1858: *Cristauaren doctrinaren jaquinbide azaldua, edo Asteteren esplicazioac*, Santiago Mazo apaizaren lanetik itzulia; Donostian argitaratua. Geroago beste argitalpen bat izan zuen, 1895ean.

1863: *Cristauaren escu-liburua. Deboziozko jardun-liburua*. Tolosan. Sarreran dioenez, Kardaberazek bere otoitz-liburua argitaratu zuenez gero, haren berrargitalpenak baizik ez omen dira egin, eta euskaldunek buruz omen zekizkiten dagoeneko. Horrexegatik, berritzeko, opa die liburu hau euskaldunei. 1869an beste argitalpen bat izan zuen.

1868: *Santa Genovevaren vicitza antzinaco denboretaco condairan ederrenetaco bat*. Christoph von Schmid edo Cristobal Schmid bavariar apaiz, irakasle eta haur eta gazteentzako liburuen idazlearen obraren gaztelaniazko itzulpen batetik euskarara itzulia. Ordurako gaztelaniazko itzulpen bat behintzat bazegoen: *Cuentecitos para niños y niñas / compuestos en Alemán por*

Cristóbal de Schmid, J.B. Foixek itzulia (1856). Hauxe izan zen Gregorio Arrueren arrakastarik handienetako bat. Berak sarreran dioenez, hain zuzen, etxeetan gurasoek haurrei irakurtzeko asmoz itzulia baita. Hiru argitalpen izan zituen izenburu horrekin (1868, 1882, 1889), eta beste laugarren bat *Bravante-co Genovevaren bicitz arrigarri miragarria* izenburupean 1885ean (1960an berrargitaratua). Geroago, 1929an, *Brabante'ko Jenobeba bertso berriyetan* Manuel Lekuona jaunak argitalpenaren sarreran dioenez, Juan Kruz Zapirain errenteriar bertsolariak 1899an bertso-paperetan paratua.



Arruek itzulitako Brabanteko Jenobebaren bizitzaren edizio zaharra eta berria

1878: *Baserritar jaquintsuaren ebeco escola* D. Juan Jose Moguel, *Marquiñaco apai-zac vizcai-eusqueran atera eta* D. Gregorio Arruec *Guipuzcoacoan itzulia*. Izenburuak argitzen ditu testuaren xehetasun guztiak.

1880: *Oracio mental edo pensamenduzcoa iduquitze* gai egoquiak *dacazquian escu-liburua*. Aita Tomás de Villacastín Jesusen Lagundikoaren *Manual de ejercicios espirituales para tener oracion mental* liburua itzulpena.

1881: *Mariaren Gloriac*, San Alfonso Ligorioc eguiñ, *eta Jesusen Compañiaco aita Ramón García* gaztelaniara itzuli zuanetic D. Gregorio Arruec *eusqueraz ipiñia*. Bi liburukitan.

1883: *Jesusen biotzaren debocia*. Aita S. Mendibururen izen bereko liburutik gipuzkerara egindako itzulpena.

1883: *Sarritaco Comunionaren gañean Segur Jaunac francesez eguin zuan liburua*. Jean Ségur-en *Sur la communion fréquente* liburua itzulpena.

1883: *Salvacioco aingura edo bertutean biciro aurreratze* cristauai bide eta gai ego-

*quiac beguietaratzten eta animen artzayai beren parroquiaco gendea ontze*co biciro lagun dizayequean *escu-liburua*. José Mach, Jesusen Lagundikoaren *Áncora de salvación* liburua itzulpena. Luze-beldurrez zertxobait laburtua eta gai batzuetan moldatua. Gerora beste bi argitalpen izan zituen, 1887an eta 1890ean.

1884: *Sacramentu chit santuari eta Maria guciz santari illaren egun gucietaraco icusaldi edo bisitac*, San Alfonso Ligorioren liburua gaztelaniazko itzulpenen batetik euskaratua. Geroztik 1887an eta 1900ean berrargitaratu zen.

1886: *Cerura igotze*co *escallera*, gaztelaniazco *cembait liburu esleitutatic atera eta* D. Gregorio Arruec *eusqueraz ipiñia*. Handik eta hemendik hartutako gogoeta- eta otoitz-liburua.

1887: *Cristoren imitacio edo munduaren desprecioa*. Tomas Kempisen liburu eza-gunaren itzulpena.

1887: *Liberalen doctrina pecatu da*. Felix Sardá i Salvanyren *El liberalismo es pecado* liburua itzulpena. Liburu honi buruz zalantza bat izan da, batez ere handik



Zerura igotzeko eskailera, Tolosan argitaratu zen 1886an, Pedro Gurrutxagaren moldiztegian

urte batzuetara, Bartzelonako argitaletxe berean (La Hormiga de Oro) Salvanyren liburuaren argitalpen monumental batean agertzen den beste itzulpen batekin nahastu izan delako. Honek *Liberalkeria pekatua da* [?] du izenburua, eta beronen egileak, Jose Maria Arana [?] jesuitak argitzen du bataren eta bestearen itzultzaileak nor diren: «Apaiz iracastle Sarda jaunaren liburucho ospatsu ori lenbizi euskarara itzuli zuben chit ondo ezpada-ere Zarauzco escolamaisu On Gregorio Arrue zana [...] Ori ta beste zazpi izcunde batera dagoen nerea, beste biurkeraric euskeraz ez det ezagutzen».



Hau ere Tolosan kaleratua, 1889an

1888: *Mayetzeco ill edo Birgina chit santari consagratutako Mayetzeco illa*. Ramón García jesuitaren liburutik euskaratua.

1889: *San Roque santu guztiz artuari bederatzi-urrena*. Felipe Velázquez Arroyoren testutik euskaratua.

1889: *Maria Doncella guciz garbiari bere sortze edo Concepcio Manchagabearen misterioan bederatzi-urrena*. «A. Silvestre Llanosol-ec erderaz ipiñi eta D. Gregorio Arrue-c eusquerara itzulia.»

1889: *Carmengo Ama Birgiñaren bederatziruuren edo nobena.*

1889: *Aita San Jose Gloriotsuaren bederatziruuren edo nobena.*

1897: *Bearguillearen arguia edo bearguintz humilletan santutu ciran cembait Cristau nobleren bicitzac.* Francesc X. Butinyáren *La luz del menestral, o sea Colección de vidas de fieles esclarecidos que se santificaron en profesiones humildes, precedida de una breve reseña sobre la Sagrada Familia* liburuaren itzulpena. Ohargarria da, zeren Francesc X. Butinyá jesuita langile kristauen mugimenduen aitzindarietako bat izan baitzen.

Juan Antonio Mogelen *Peru Abarka* bizkaieratik gipuzkerara egokitu zuen «aldadera batzuekin», berak izenburuan dioen bezala. Fausto Arozenak argitaratuko zituen, 1948-1949an, haren sei solasetatik lau. Eskuizkribua Gipuzkoako Foru Aldundiko Liburutegian dago.


Itzulpenez gainera, ordea, baditu beste zenbait idazki, osorik behintzat itzulpenak ez direnak.



San Ignazioren bicitza, 1866

1866: *Aita San Ignacio Loyolaco gloriosoaren bicitza.* Obra laburra. Gerora beste bi argitalpen izan zituen gutxienez, 1881ean eta 1893an.


1883: *Ondo pensa ezazu. Cristau Eguiazcoaren Jaquintasun andi ta arrazoi-bide zucena.* Seguru asko handik eta hemendik bildutako testuz osatua.



Ondo pentsa ezazu, 1883

Gregorio Arruec idatzi eta argitaratu gabe geratuen artean, Dogson euskaltzaleak Aita Garcia frantziskotarrak idatzitako ia 800 orrialdeko San Ignazioren bitzta baten itzulpena aipatzen du, Gregorio Arrueren semeak berari erakutsia eta Gipuzkoako Diputazioari eskainia. Hiztegi-lanetan ere zerbait aritu zen, R. M. Azkuek bere hiztegiaren sarreran baitio «Arrue, Zarauzko maisuak, Larramendiren hiztegiari egingdako albo-ohar» batzuez ere baliatu dela.

Gregorio Arrueren prosaren ezaugarri nagusia oparotasuna eta erraztasuna da.



Lore Jokoetan saritutako Arrueren lanetako bat

Seguru asko bere maisuak izan zituen Zarauzko frantziskotar misiolariak bezala, Larramendiren hiztegiari men egin gabe, herriaren hizkeratik eta bere aurretik izan ziren idazle handiengandik jakin zuen jasotzen bai hiztegia bai sintaxi zalu, arin, aberatsa.

A. Abadiak antolatzen zituen «Lore Jokoak» Hego Euskal Herrian ospatzen hasi zirenean, behin baino gehiagotan hartu zuen parte haietan, eta zenbait sari eta ohorezko aipamen irabazi ere bai: 1881ean Donostian ohorezko aipamena, 1882an Donostian zilarrezko erramua, 1884an Donostian akzesita, 1886an Arantzazun saria. Sari-kideen artean aipatzekoak dira Antonio Arzak, Ramon Artola, Felipe Arrese Beitia, Serafin Baroja, Karmelo Etxegarai, Klaudio Otaegi eta Foruen galeraren ondoko urteetako euskararen aldeko piztaldian berebiziko garrantzia izan zuten beste hainbat.

Gregorio Arruek Louis-Lucien Bonaparte printze hizkuntzalariarekin harremanak izan zituen. Baina batez ere Willem van Eys holandar hizkuntzalariarekin izan zituenak dira ezagunagoak eta luzeagoak. Bi urtetan egon ziren Zarautzen Van Eys senar-emazteak, Gregorio Arruerekin euskara ikastera

berariaz joanda: 1866an eta 1868an. Van Eysen paperen artean, Georges Lacombe dioenez, Gregorio Arruek prestatutako oharra ere baziren.

AZKENEKO URTEAK

Zahartua, akitua, indarrrik gabea, gorra, ia itsua eta gaixorik aurkitzen du bere burua Gregorio Arruek. Baina oraindik ere beste hamahiru urtetan zehar liburuak euskaratzeko lanari ekingo dio gogotik. Zarautzen bizi eta Zarautzen hil zen 1890eko apirilaren 22an, 78 urte zituela.



Euskaltzaindiak G. Arrueri 1990eko apirilean Zarautzen egin zion omenaldikoa

Egileak eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, liburuxka hau egiteko eskaini duten informazio eta laguntzagaririk, eskerrak eman nahi dizkiete:

- Zarauzko frantziskotarrei
- Zarauzko Sanz Enea kultura etxeari
- Joseba Etxeberria Arantzazuko liburuzainari

Zuzendaritza: Jerardo Elortza
Argitaraldia: 1.a, 2013ko abenduan
Ale-kopurua: 2.300
© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila
Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz
Argazkilaria: Edorta Sanz
Fotokonposizioa: SACAL • Barratxi, 2 (Pol. Ind. Gamarra-Betoño) - 01013 Vitoria-Gasteiz
Inprimaketa: SACAL • Barratxi, 2 (Pol. Ind. Gamarra-Betoño) - 01013 Vitoria-Gasteiz
ISBN: 978-84-457-3325-7 (Lan osoarena)
978-84-457-3326-4
L.G.: VI 859/2013



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA